

LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



AMAIERAKO UDAL ESKOLA
FOROAN AURKEZTEKO IDATZIA
PROIEKTUAREN 2.IKASTURTEA



2026ko ekainaren 9a

Kaixo guztioi!

Arrasateko ikasleak gara, Arrasate Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetako) ikasleak. Gaurko ekitaldian ikasturte honetan egindako lanaren berri ematera gatoz, Eskolako Agenda 2030 egitasmoaren baitan egindako lanketa, hain zuzen ere.

2024-2025 ikasturtean hasitako proiektua jarraituz, gaur hemen gaude Arrasateko ekosistemak ezagutzeko eta babesteko egindako jarduerak aurkezteko. Aurreko ikasturtean, herriko basoak, berdeguneak eta kaleak aztertu genituen eta horri buruzko diagnostikoa prestatu genuen. Ikasturte honetan, berriz, ekintza eraldatzaile konkretuak jarri ditugu praktikan diagnostiko horretan oinarrituta eta Udalarekin lankidetzan.

Helburu nagusia da lehorreko ekosistemak babestea, leheneratzea eta modu jasangarrian erabiltzea, Garapen Iraunkorreko IS. Helburuaren arabera. Ekintza guztien bidez, ikaskuntza praktikoa eta parte-hartzailea lortu nahi izan dugu, ikasleek naturaren balioa ulertu eta herritarren artean kontzientzia sortu dadin.

Aurreko ikasturteko lanketaren ondoren, identifikatu genituen 3 arazo ekosozial gure herrian:



Basoak: gure basoen egoera eskasak eragiten du espezie asko galtzeko arriskuan egotea eta herritarrek maila txikiagoan jasotzea ekosistema horiek eskaintzen digutena: plagen kontrol biologikoa, paisaiaren edertasuna, eta abar.

Berdeguneak: herriko berdeguneetan baliabide natural batzuk falta dira, adibidez, ura edo egur hila, eta babesleku izan daiteke galzorian dagoen fauna espezie askorentzat. Gainera, herritarrek espazio hauen erabilera txikia egiten dute.

Kaleak: Arrasateko kale asko grisak dira, ez daukate zuhaitzik ez berdegunerik, ondorioz, bero handia dagoen egunetan, oso desatsegina da kalean ibiltzea, ez dagoelako itzalik eta gainera, estetikorik ez da batere erakargarria.

2025eko ekaineko osoko bilkuran aurkeztu genituen hainbat proposamen eta konpromiso arazo ekosozial horiei aurre egiteko. Horrekin batera, esku hartze plana diseinatu genuen ikasturte honen hasieran eta kurtsoan zehar aritu gara plan hau martxan jartzen.

Aurten, maiatzeko eskola arteko foroan, plana ebaluatzeko elkartu gara ikastetxeetako ordezkariak, eta testua adostu dugu gaur zuen aurrera ekartzeko.

Esku hartze planeko ekintzetako batzuk gure ikastetxeetan egin ditugu:

- Lehorreko ekosistemen bizitzari buruz ezagumenduak izateko, gure inguruko basoak, landareak eta animaliak ezagutu ditugu. Irteerak egin ditugu eta gero ikasitakoa ikastetxeko beste ikasleei azaldu diegu.
- Ikastetxean papera ondo birziklatzeko planak egin ditugu eta ikasle nagusiak arduratu dira astero dena ondo egiten dela zaintzeaz. Gainera, zabor gutxiago sortzeko eta argia edo ura hobeto erabiltzeko dekalogoak egin ditugu.
- Uraren garrantziaz ere hitz egin dugu. Ikasi dugu ura oso garrantzitsua dela munduan eta gure herrian, eta ezin dugula alferrik galdu. Horregatik, ura aurrezteko aholkuak prestatu ditugu eta ikastetxean gogorarazteko kartelak jarri ditugu.
- Sendabelarrak ere ezagutu ditugu. Zertarako erabiltzen diren ikasi dugu eta batzuk bildu ditugu. Gainera, ukendu naturalak egin ditugu eta ortuan sendabelarrentzako txoko berezi bat prestatu dugu.
- Ikastetxe batzuetan ortua sortu edo handitzen ari gara. Barazkiak eta landareak landatu ditugu eta azokara joan gara landare gehiago ezagutzera.
- Jolastokia eta ikastetxeko berdeguneak garbi mantentzeko ere lan egin dugu. Hondakinak bildu ditugu eta espazio horiek zaintzeko ardura hartu dugu. Horrela, denontzako leku politagoa eta garbiagoa lortu dugu..



- Bestalde, txoko berdeak sortu ditugu ikastetxeetan. Landareekin apaindutako espazioak egin ditugu eta haiek zaintzen aritu gara
- Sormena ere erabili dugu. Naturari eta ingurumenari buruzko bertsoak eta mezuak sortu ditugu. Horrela, gure ideiak modu dibertigarrian adierazi ditugu.

Arratsalde on Mainer
 ta zinegotziak
 behar ditugu hartu
 gaur erabakiak
 herriari begira
 aukera berriak
 guk ere baditugu
 gure iritziak



- Musakolako jaietan ere parte hartu dugu. Kaleak oihalezko banderinekin apaindu ditugu, plastikoa erabili gabe. Horrela, jaiak ere modu jasangarrian ospatu daitezkeela erakutsi dugu.
- Ikasturte osoan konpromiso batzuk hartu ditugu: zabor gutxiago sortzea, ura eta argia aurrezteak, natura zaintzea eta gure ingurunea errespetatzea. Uste dugu ekintza txikiekin gauza handiak lor ditzakegula.



Esku-hartze planeko beste ekintza ugari ere egin ditugu herrian

- Txorientzat 30 kabi-kutxa prestatu eta herriko hainbat gunetan jarri ditugu. Kabi-kutxa hauek txoriei habia egiteko leku seguruak eskaintzen dizkiete, batez ere zuhaitz zahar gutxi dauden tokietan. Gainera, hegazti txikiek intsektuak kontrolatzen laguntzen dute eta horrek naturaren oreka mantentzen laguntzen du.
- Saguzarrentzat 15 babes-kutxa eraiki eta herriko berdeguneetan ipini ditugu. Saguzarrak oso garrantzitsuak dira ekosisteman, gauez eltxo eta beste intsektu asko jaten dituztelako. Horrela, izurriteak modu naturalean kontrolatzen laguntzen dute.
- Herriko berdeguneetako zaborra garbitu dugu, natur guneak txukun eta osasuntsu mantentzeko.
- Herriko zuhaitzen izenekin kartelak prestatu eta jarri ditugu. Kartel horiei esker, herritarrek eta ikasleek bertako zuhaitz espezieak ezagutzeko aukera dute, eta gure inguruko natura hobeto baloratzen ikasten dute.
- Kanean herritarrei hegaztiei buruzko galdetegiak egin eta esku-orriak banatu dizkiegu. Jarduera honen bidez, herritarren iritzia eta ezagutza jaso ditugu, eta hegaztiak zaintzeko gomendioak eman dizkiegu.
- Polo Garaian eta Zirolako balkoian panpa-belarra kontrolatzeko lanak egin ditugu. Landare inbaditzaile honek lekua kentzen die bertako landareei eta oso azkar zabaltzen da.
- Bertako basoetako haziekin hazi-bolak egin eta ekosistemak berreskuratzeko eremuetan zabaldu ditugu. Hazi-boleak landare berriak hazten laguntzen dute eta lurzorua aberasten dute. Horrela, pixkanaka bertako landaredia berreskuratzen laguntzen dugu.
- Herriko berdeguneen mapak osatu ditugu, zuhaitzen izenak eta jarritako babeslekuak bertan adieraziz.



- Intsektuentzako bi hotel eraiki ditugu Udalako Ingurumen Eskolan. Hotel hauek erle, tximeleta eta beste intsektu askorentzat babesleku bihurtzen dira. Intsektu polinizatzaileek oso lan garrantzitsua egiten dute landareak ugaltzen laguntzen dutelako.
- Hegaztientzat jantokiak egin ditugu eta leihoetan talka ez egiteko siluetak ere prestatu ditugu. Neguan, jantokiek txoriei janaria aurkitzen laguntzen diete, eta siluetei esker hegazti gutxiagok egiten dute talka kristalekin.
- Udal langileek San Balerioko panela konpondu dute. Panel horretan ingurumenari eta herriko naturari buruzko informazioa agertzen da, eta orain berriro irakurri eta erabili ahal izango da.
- San Balerion, Hidalgobason eta Antoniñako instingan berreskuratutako basoak ezagutzera emateko kartelak prestatu eta jarri ditugu. Kartel horien bidez, herritarrek jakin dezakete zer lan egin diren eremu horietan eta zergatik den garrantzitsua basoak berreskuratzea.
- Etxezarretan herritarrekin landatutako zuhaitzak zaindu ditugu, kartelak jarri eta espezie inbaditzaileak kontrolatu ditugu.



Aipatzekoak dira **Udalak** bultzatu dituen ekintzak, herriko natura eta ingurunea hobetzen laguntzen dutenak eta gure esku-hartze plana osatu dutenak:

- Enarak eta sorbeltzak ikertzeko eta zaintzeko herritarren zientzia programa jarri da martxan. Hegazti hauek babesluak daude eta garrantzitsua da elkarbizitza egokia bermatzea.
- Erreka garbitzeko eta ezagutzeko auzolana egin da parte-hartze handiarekin. Zaborra biltzea eta erreka ezagutzeaz gain, herri lanaren indarrak jabetu gara.
- Asiako liztor beltza harrapatzeko 57 tranpa jarri dira herrian zehar. Liztor espezie hau arriskutsua da bertako erleentzat, eta erleak oso garrantzitsuak dira loreak polinizatzeko eta naturaren oreka mantentzeko.
- Zuhaitz Egunean adin desberdinetako herritarrek 400 zuhaitz landatu zituzten Etxezarretan.



- Etxezarretako lorategia berritu da, zuhaitz zaharrak balioan jarriz eta egur hila bertan utziz. Egur hila animalia eta intsektu askorentzat babesleku bihurtzen da, eta horrek biodibertsitatea handitzen laguntzen du.
- Etxezarretako Barrena errota izeneko presa zaharra eraitsi dute, eta erreka ertzeko landaretza leheneratuko da. Horrela, arrainak eta beste animalia batzuk errazago mugitu ahal izango dira errekan zehar.
- Udalak 22 hektarea landa-lur erosi ditu basoen bioaniztasuna handitzeko asmoz.
- Garagartzako koba batean pertsonen sarrerak eta irteerak eragozteko itxiturak jarriko dira, izan ere, saguzarrentzako babesleku garrantzitsua da eta animalia hauei molestiak ekiditea ezinbestekoa, oso mehatxatuta baitaude.

- Zarugalde kaletik autoak kendu dira, eta orain oinezkoek eta bizikletek lehentasuna dute. Horrela, kalea seguruagoa eta lasaiagoa bihurtu da eta kutsadura eta zarata gutxitu da.
- Udalak plan bat landu du herriko azpiegitura berdea, klima eta energiaren egoera hobetzeko.
- Berdegune batzuetan belarra luze uzten da moztu gabe, Erguinen, Arruenan eta Santa Barbaran. Belar luzeak aukera ematen die landare espezie anitzei garatzeko eta animaliei babeslekua edukitzeko.

Horretaz gain, esan beharra daukagu ez direla bete iaz Udalari egin genizkion proposamenetako batzuk, eta interesgarria ikusten dugula hauek gauzatzea, horregatik eskatzen diogu ahaleginak egin dezala hurrengo betetzeko:

- Kurtzetxikiko harrobi zaharrea dagoen zulo handia berriro natural bihurtzea, paisaia atsegina sortuz.
- Berdeguneetan aurkitu daitezkeen bizidunen informazioa adierazten duten panelak jartzea.
- Santa Barbara eta Monterron parkeetako urmaelak konpontzea, ur baliabidea eskaintzeko basa animaliei (anfibia, hegazti edo burruntziei).
- San Kristobal prestatzea natur aisialdirako eserlekuak eta beste ekipamendu batzuk jarritz.
- Kaleetan zuhaitz gehiago landatzea eta ibai ertzeko basoa berreskuratzea.

Denon artean egindako ekintzei esker, gure herria atsegina, berdeagoa eta jasangarriagoa izango dela espero dugu. Eta amaitzeko, guk geuk sortutako bertso batzuk kantatuko ditugu. Espero dugu zuen gustukoak izatea!

Eskerrik asko denoi
entzuteagatik
bertso hau egin dugu
bihotz-bihotzetik
Arrasate eraiki
Naturarengatik
landare, animaliak
bizitzeko pozik.



Oso polita izan da
interesgarria
asko gustatzen zaigu
gure herri berria
zuhaitzak gehitu ezker
bai zoragarria
Naturaz inguratu
nahi dugu herria.